

LEIREKO KUTXATILA

KRISTAUAK, JUDUAK ETA MUSULMANAK ERDI AROAN



Leireko kutxatila K.o.1004-1005
Bolizko lana, hispaniar-musulmana,
Kordobako kalifaldiko bukaerakoa. Farai
maisua eta beste lau artistaren obra da.

BISITARAKO JARRAIBIDEAK

Iruñean, 20.... (e)koaren(e)an

.....

.....

Irakasle agurgarria:

Aditzera ematen dizugu “Leireko kutxatila: kristauak, juduak eta musulmanak Erdi Aroan” jarduera hitzartua duzula Nafarroako Museoan, ondoko hauetan:

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Data:..... Ikasle kop. Ordua: Euskaraz.

Mesedez, **esandako orduan** etorri. Jarduera ordu eta erdikoa da, gutxi gorabehera.

Irakasleak **taldearekin** egon behar du, **isilik**, bisitan.

Zure taldearekin etortzen zarenean, bisita berresteko orria ekarri.

Edozein kontsulta egin nahi baduzu, deitu 848 426 493 telefonora.

Sinadura: ANA REDÍN
DIDAKTIKA ARLOA

MUS^{NAFARROAKO}**OA**

BISITA

BISITAREN AURRETIK. IKASGELAN

Ziur aski, ikasleek lehen aldia dute museo batean. Horregatik da garrantzitsua motibatuak etortzea, ongi pasatzea Nafarroako Museoan.

Komenigarria da umeez jakitea horrelako toki publikoetan zer jokabide izan:

- Ahots-tonu normalaz mintza daitezke, zalapartarik atera gabe.
- Piezetara hurbildu daitezke, baina ukitu gabe.
- Piezetara hurbildu nahi badute, txandaka egin, denek aukera izan dezaten.
- Seinalatu dezakete, baina ez erabili horretarako arkatza edo boligrafoa.
- Ezin da txiklerik mastekatu, ezta ogitartekorik eta abarrik jan ere.
- Ez jarri hormen edo bitrinen kontra. Geletan badira eserlekuak atsedean hartzeko eta idazteko. Denontzako tokirik ez bada, lurrean eseri, beste bisitariari bidea ez galarazteko moduan.

IRISTEAN. MUSEOKO HARRERA-LEKUAN

Ikasleek bizkar zorroak eta berokiak jantzitegian utziko dituzte.

BISITA. LEHEN SOLAIRUAN

Hemen monitorea izanen dute zain. Hark ikasleei kontatuko die Leireko kutxatilaren historia eta Goi Erdi Aroko arteaz eta historiaz mintzatuko zaie.

Iraupena, gutxi gorabehera: 60 minutu.

Eskultura aurrerromanikoa eta erromanikoa ikusteko ibilbidea

Jardueraren ondoren, ibilbidea zuen kasa egitea proposatzen dizuegu hainbat pieza aurrerromaniko eta erromaniko ikusteko.



Villatuertako San Migel ermitako eskulturak, Penintsulan gai kristauak dituzten zaharrenetakoak dira, segur aski X. mendekoak direlako, hala nola: Kristo gurutziltzatua, San Migel, apezpiku bat zaldi gainean, zeremonia liturgiko bat, hegazti bat eta tximino bat.

San Migel (Villatuerta) X. mendea

Iruñeko katedral erromanikotik XII. mendeko zenbait pieza baizik ez dira ailegatu: klaustroko zazpi kapitela eta fatxadako sei zati.

XIV. mendean katedral erromanikoaren erdiko habeartea erori zen eta berria estilo gotikoan jaso zuten. Eraikin zaharretik bihitegia eta fatxada gelditu ziren zutik. Fatxada 1802an aldatu zuten eta neoklasikoa jarri, Ventura Rodriguezek eginikoa.



Fatxada erromanikoan zegoen kapitela. Esteban maisua, Iruña, X. mendea

Katedral erromanikoan Esteban maisua aritu zen, arkitektoa eta eskultorea. Santiago Compostelakoan eta Done Jakue bideko hainbat eraikinetan ere egin zuen lan maisu horrek.



Klaustro erromanikotik zazpi kapitela gelditu zaizkigu, Katedraleko Klaustroko maisuaren lanak. Horietako bik Kristoren nekaldia irudikatzen dute, batek Joben historia eta beste lauk eragin islamikoa duen landare dekorazioa.

Katedraleko Klaustroko maisuak eginiko kapitela, XI. mendea

IRTEERA. LEHEN SOLAIRUAN

Jarduera bukaturik, ikasleak irakaslearekin aterako dira. Bera arduratuko da hurrek jantzitegian utzitakoa hartzeaz.

HELBURU DIDAKTIKOAK

Ikasleekin ondoko helburuak landu nahi dira:

- _ Artelanak ezagutzeko interesa eta ikusteko gogoia piztea.
- _ Astialdia museoak, monumentuak eta erakusketak ikustera bideratzea.
- _ Museoetan eta arte erakusketetan nola jokatu jakin eta arauak errespetatzea.
- _ Behatzeko gaitasuna garatzea.
- _ Ulertzeko eta adierazteko gaitasuna lantzea, alor hauetan: plastikan, ikustekoan, ahozkoan.

- _ Norberarenak bezalakoak ez diren adierazpen plastikoak errespetatu eta estimatzea.
- _ Ondarea errespetatzea eta haren balioaz jabetzea.

BISITALDIAN LANDUKO DIREN EDUKIAK

KRISTAUAK, JUDUAK ETA MUSULMANAK

VIII.-XIV. mendeetan Nafarroako egungo lurraldean kristauak, juduak eta musulmanak bizi izan ziren. Juduak K.o. lehen mendeetan etorri ziren penintsulara. Kristautasuna IV.enean zabaldu zen, eta Islama VIII. mendearen hasieran.

Alfontso Borrokalaria (1104-1134) Erribera bereganatu zuenean, juduak eta moriskoak bere mendekotzat hartu eta haien ondasun, bizimodu eta ohiturak errespetatu zituen. Elkarbizitza baketsu hori XIV. mendearen hasieran hondatu zen, judutegietako sarraski eta erasoak zirela medio. Gero juduak kanporatu (edo konbertsiora behartu) zituzten, Gaztelako eta Aragoiko erresumetatik 1492an eta Nafarroakotik 1498an. Moriskoak Espainian gelditu ziren, XVII. mendearen hasieran bota zituzten arte.

ERDI AROKO ESKULTURA

Erdi Aroko eskultura euskarri duen arkitektura apaintzeko egina da, baita mezu erlijiosoak, moralizatzaileak eta propagandakoak zabaltzeko ere.

Eskultura erromanikoa komunikabide eranginkorra da batez ere. Beraz, ez zen, nahitaez, gizairudien proportzio kanonikorik erabili behar, ezta espresiorik eman ere haien aurpegi eta keinuei. Gotikora hurbiltzen den heinean, eskulturak zurruntasuna galdu eta errealismoan, mugimenduan eta xehetasunen fintasunean irabaziko du. Bai harria bai zura kolore biziz polikromatzen zen, gaur egun galduak dituzten arren.

Jarduera honetan bolian landuriko (eboraria) kutxatila bat eta harrian zizelatutako erliebeak ikusiko ditugu. Erliebea da oinarri lau baten gainean nabarmenduz egiten den eskultura. Nabarmentzen denaren arabera, altuerliebea izanen da (irudi osoaren erdia baino gehiago nabarmentzen bada) edo baxuerliebea (erdia baino gutxiago nabarmentzen bada).